

Osasun Publikoaren eta Adikzioen 2016eko Txostena

Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren Zuzendaritzak Osasun Publikoaren eta Adikzioen 2015eko Txostena kaleratu du. Jarraian, labur azaltzen dira Elikagaien Segurtasunarekin zerikusia duten gaiak.

Elikagai-establezimenduak kontrolatzeko programaren helburua da EAeko elikagai-establezimenduak ikuskatzea establezimendu bakoitzaren osasun-arriskuan oinarrituriko maiztasunarekin. Xede horrekin, Osasun Zerbitzuko ikuskatzaileek **8.842 kontrol-bisita** egin dituzte denera; bisita horietatik 316 autokontrolerako programak ezartzeko auditoretzak izan dira, hiltegietaiko ikuskapenak eta erreklamazioen jarraipena, besteak beste...

Elikagaien segurtasun mikrobiologikoa

Establezimenduetako kontrol ofizialaren harira, 661 establezimendutan jasotako produktuen 1.503 laginen ikerketa analitikoa egin da. Hauek dira emaitza aipagarrienak:

Lagin ez-bateragarriak sorrarazi zituzten patogenoak edo haien toxinak hauek izan ziren: *Campylobacter* spp (<http://wikia.elika.eus/index.php?title=Campylobacter>) (24 lagin, % 52,2), metizilinarekiko erresistentea den *Staphylococcus aureus* (http://wikia.elika.eus/index.php?title=Staphylococcus_aureus) (25 lagin, % 24,1), norobirusa (<http://wikia.elika.eus/index.php?title=Norobirusak>) (1 lagin, % 14,3), *Yersinia enterocolitica* (<http://wikia.elika.eus/index.php?title=Yersinia>) (5 lagin, % 7,2), *E. coli* (http://wikia.elika.eus/index.php?title=Escherichia_coli) berotoxigenikoa (2 lagin, % 1,7), *Salmonella* spp (<http://wikia.elika.eus/index.php?title=Salmonella>) (8 lagin, % 0,5) eta *Listeria monocytogenes* (<http://wikia.elika.eus/index.php?title=Listeria>) (6 lagin, % 0,5). Ikertutako higiene-faltaren adierazlearen artean, 37°Cra dauden enterobakterioak izan ziren hutsegite gehien eman zuen parametro nagusia (173 lagin, % 14,5).

Sektoreei dagokienez, haragiaren eta **haragi-produktuen sektoreak** izan ditu lagin ez-bateragarri gehienak: aztertutako 163 laginetik 70 (% 42,9), 88 establezimendutan; jarraian, **opilgintzaren sektoreak** (% 22,1 lagin ez-bateragarriak), eta **esnearenak eta esnekienak** (% 16,7 lagin ez-bateragarri).

Hondakinak animalia-jatorriko elikagaietan

Osasun Publikoaren eta Mendekotasunen Zuzendaritzak, Farmazia Zuzendaritzak, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak eta Foru Aldundietako Abeltzaintza Zerbitzuek substantzia horiek kontrolatzeko plan batean dihardute 2001az geroztik, sendagaietako hondakinak, animalia-erabilerarako debekatutako substantziak, plagizidak eta ingurumen-kutsatzaileak gutxitzeko helburuz.

Sendagaien artean, mikrobioen aurkako produktuetan aurkitu da, oro har, gorabehera gehien. Hori dela eta, batik bat talde horretako laginak hartu dira orain arte. Hala ere, 2016. urtean ez zen gorabeherarik aurkitu substantzia horietan gure lurraldean.

Ingurumen-kutsatzaileei dagokienez, bateraezintasun bat aurkitu da behi batean, mikotoxina batek kutsaturiko pentsuarekin elikatzearen ondoriozkoa.

Hiltegietaiko ikuskapenak

EAEko hiltegietan etengabe ikuskapenak egiteko Albaitaritza Zerbitzu Ofizialak helburu hauek ditu, besteak beste: 1) *haragien kalitate higieniko eta sanitarioa bermatzeko beharrezko kontrolak egitea;* 2) *giza kontsumorako desegokitzat jo diren haragi eta erraiak elikakartetik kentzen direla zaintzea.* Horretarako, industrien jarduera etengabe ikuskatzen du (hilko diren animalia guztien hil aurreko eta ondorengo ikuskapena), animaliak ongi egoteko baldintzak betetzen direla berresten du, eta agente zoonotiko nagusiak zaintzen eta kontrolatzen ditu.

Hil aurreko ikuskapenetan sarrien aurkitzen diren gorabeherak animalia-ongizatearekin eta identifikazioarekin lotutako datuen ondoriozkoak izaten dira behietan; identifikazioarekin eta garbitasunarekin lotutako datuen ondoriozkoak zaldietan; eta animalia-ongizatearen segidako identifikazioarekin lotutako datuen ondoriozkoak txerrietan.

Bestalde, honako hauek dira **konfiskazio partzialen kausa nagusiak**, espezieen arabera: behietan, bronkopneumoniak eta pleuresiak eragindako lesioak (% 25,95), gibelego distomatosisia (% 15,97) eta hainbat organotako abszesuak (% 11,31); txerrietan, heste-zizare handiak gibelean eragindako parasitazioa (% 41,29), perikarditisa (% 20) eta bronkopneumoniak eta pleuresiak eragindako lesioak (% 18,21); eta ardietan, hainbat agentek eragindako gibelego parasitosisia eta biriketakoa (% 83,39).

Azkenik, animalia batzuk, *ongizatea dela eta, ez dira egokiak hiltegiara garraiatzeko eta "in situ" hil daitezke*, eta haien haragia giza kontsumorako erabil daiteke. Bada, joan den urtean, ongizate-arrazoiengatik ustiategian hildako 37 animalia iritsi ziren gure hiltegiatara, eta horietatik soilik 2 jo dira giza kontsumorako desegokitzat.

Informe Salud Pública 2016 Salud pública y adicciones – Salud Pública GV

(http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes_salud_publica/es_def/adjuntos/informe-SPyA-2016.pdf)
ELIKA . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 . berri@elika.eus
(<mailto:berri@elika.eus>)